

SARRERA

COVID- 19ak sortutako krisiak turismo sektoreari bereziki eragin dio eta horren ondorioz Geoparkearen aktibitate normala moteldu egin da. Asanblada Orokorrak otsailaren 18an onartu zuen Gestio Plana guztiz desfasatua gelditu da eta berregiteko beharrean ikusi gara. Egoera berriari egokitutako plan bat egin dugu ez jakintasunaren aurrean tentuz jokatzuz.

Irteera gidatuen denboraldia martxoaren 13an eten egin zen <https://geoparkea.eus/eu/albisteak/bisita-gidatuak-bertan-behera-geratzen-dira> eta honek kalte handia eragin dio Geoparkeari eta bisita geoturistikoen esleipenduna den enpresari. Jakin badakigu Geoparkea eta orokorrean atur gunek toki aproposak izango direla udako ihesaldiak egiteko eta Geoparkea bisitariak hartzeko toki seguru eta erakargarri bat egitea da gure helburua. Horretarako dana prest eduki behar da uda eta urtearen bigarren erdiari aurre egiteko.

Gestio Planean jaso ziren ekintza batzuk bertan behera gelditu dira osasun neurriak mantentzea ezinezkoa zelako eta beste batzuk atzeratu egin dira, egoerak ahalbideratzen duenerako. Hau da Geoparkearen helburua, aktibitatea berreskuratu eta sektore turistikoari normaltasuna berreskuratzen laguntzea.

Ekainean zehar irteera gidatuekin jarraitzea aurre ikusten da. Programa osoa birdiseñatu beharko da baita bisita berak ere mugak, gera lekuak eta osasun neurriak kontutan izanda.

Aurten Geoparkeak 10 urte betetzen ditu Europako eta Munduko Sareko kide garenetik. Ospakizun honetarako programatutako ekitaldiak ere udazkeneko egoerari baldintzatuta daude, ordurarte ezingo dugu erabakirik hartu.

Hala ere, proiektu estrategiko batzuk aurrera dihoazte martxa onean. Aurre historiaren Bailararen aurre proiektua uda aurretik bukatuta egongo da eta Nautilus gela didaktikoa datorren ikasturterako prest egon gaiteke, behin obra bukatatuta dagoela.

Ekoturismoa izango da gure garapenaren eredia. Beti izan bada ere, orain zentzu gehiago hartu du. Ekoturismo klubarekin batera, Ekoturista naiz web gunearen bitartez merkaturatzen ekimenak egin ditugu VITAMIN BOX produktua adibidez, GenuineSpain agentziaren bitartez komertzializatzen dana

<https://soyecoturista.com/nace-vitaminbox-una-caja-de-experiencias-de-ecoturismo-en-espana/>

ICTEk, Turismoko Secretaría de Estadok eskatuta idatzi duen Natur guneen protokoloan hartu dugu parte, OAPN (Organismo Autónomo de Parques Nacionales) Biosfera Erreserbak (MAB) eta Estatu mailako beste ordezkari batzuekin. Honek erakusten dut Geoparkeen duten garrantzia natur guneen artean eta haien artean Euskal Kostaldeko Geoparkeak duena.

Hezkuntza Geoparkearen zutabe izaten jarraituko du, hirugarren unitate didaktikoa egiten gabiltze LH6 rako Lasturko Karstaren inguruan. Zalantza gehiago ditugu proba pilotoa ikastetxeetan egin ahalko dan ala ez eta aurretik egindako biak eskaintzeko gai izango garen ala ez. Datorren ikasturtea nola hasten dan ikusi beharko dugu eta zuzendaritza eta irakaslegoarekin batera material berria erabiltzeko aukera baloratu.

Sentsibilizazio ekimen batzuk eta nazio arteko egunen ospakizunak bertan behera gelditu ziren konfinamentu garaian izan zirelako. Paleontologiako XXXVI Jardunaldiak ere bertan behera gelditu ziren.

Komunikazioa eta sare sozialak estrategikotzak hartzen ditugu, eta bere biziko garrantzia hartu dute egoera honetan. Atlantic Geoparks dokumentala estrenatu dugu Geoparke Atlantikoak promozionatzeko bidaiatzen hasten garenerako.

Mantxan dagoen beste proiektu bat komunitate Geoparkezalea da. Diagnosi eta akzio plan bat idazten gabiltza non herritarrak, elkarteak, enpresa turistikoak, bisitariak, eskolak etab parte hartuko dute Geoparkearen marka hedatu eta kide izatearen sentimendua sortzeko helburuarekin.

1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz horren helburuetako bat da, baita ere, ingurumen-heziketako eskaintza koordinatu bat sortzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat motatako jendearentzat interesgarri egingo duena, eta eskola-esparruarentzat bereziki.

1.1. Lurraren Zientzien (LZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- **Nautilus gela didaktikoa.** Udalaren jabetzako lokal batetan amonite bilduma osoa batu eta ikerketa eta Geoeskolen tallarrak erabiltzeko prestatu. Geoparkeak gelako interpretazioa egiteko ardurua izango du. Proiektua aurre ikusitako epeetan egingo da.

1.2. Ondare Arkeologikoa eta historiaurrea

- **Ikerketaren sustapena**

Aranzadi Zientzia Elkartea eta UPV/EHU rekin batera bi urtetako proiektu bat lortu genuen Unibertsitate-gizarte programaren barruan paisaiaren bilakaeraren inguruan, aurrean bukatuko da proiektua.

- **Karst eta gizakia-ren aurreproiektua (Historiaurrearen bailara).**

Paleomas empresa izan da Aurre historiaren aurre proiektua idazteko esleipenduna, proiektua idazten dihardu eta uda aurretik bukatuko da.

- **Ermittiako indusketa arkeologikoa.** Interpretaziorako edukiak aberaste aldera indusketa kanpañak hasiko dira Ermittiako koban Xabier Peñalver eta Josean Mujikaren zuzendaritzapean.

1.3. Ingurumen hezkuntza. Geoeskolak

Aurreko urtetako proiektuarekin jarraituz, aurrean ere hezkuntzarako material berria sortuko dugu. Hiru herrietako eskolek, ikasturte bakoitzeko kurrikulumarekin bat datorren gai eta material berdinak erabili dezaten.

- Karstaren inguruan Unitate didaktiko berri bat egingo da LH6rako. Lana enkargatu da eta egiten dihardue. Zalantza bat proiektua probatzerako orduan, ikusi egin behar datorren ikasturtea zein baldintzatan hasten dan.

- DBH4 eta LH1entzat aurretik egindakoak Geoeskolen artean promozionatuko dira (datorren ikasturtearen arabera)

2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira turismo jasangarriaren irizpideei jarraituz, beti ere.

2.1. Produktuak eta baliabideak

- **Ekoturismoa**

Martxora arte egin ziren ekintzak:

- Fiturren Turespañako standean aurkezpena egin da
- Gasteizko ekoturismo foroan parte hartu
- Euskadiko Ecoturismo Sareko bileretan parte hartzea.

COVID 19ak sortutako krisian Ekoturismo klubarekin elkarlana sendotu da, Ekoturista naiz markaren bitartez. VITAMIN BOX produktua merkaturatu da Genuine Spain agentziaren bitartez Geoparkean ekoturismoko esperientziak eskainiz.

Eskaera ezberdinak eduki ditugu Geoparkearen “entitate laguntzaile” egiteko eta Ekoturismo Klubean parte hartzeko. Momentu honetan 19 entitate laguntzaile ditugu eta 3 eskaera berri. 3 hautagaitza hauek onartzeko, irizpideak betetzen dituztela ziurtatu behar dugu eta hori Debarrena eta Urola Kosta eskualdetako lehiakortasun teknikarien esku dago.

2.2. Irteera gidatuak

Zerbitzu Geoturistikoak eskaintzeko esleipen berri bat egin da hurrengo lau urteeratarako. Urtero bezela, 2020 urte guztirako programa definitu zen, web gunera igo, erreserba zentratean hobekuntzak egin, folleto berria atera eta dana prest denboraldi berrirako. Martxoaren 13an programa osoa eten egin zen beste agindu batera arte.

8/2020 Errege Dekretuaren 34. Artikuloan oinarrituta esleipendun enpresarekin kontratua eten zen eta sortutako gastueik aurre egiteko kalte ordain bat adosten da. Birritan adosten da kalte ordaina, 03/13-04/12 eta 04/13-05/10 aldiatarako momentuz baña luzapenak aurre ikusten dira.

Aktibitatea baimentzen denean etendura partzial batera pasatzea aurre ikusten da, bolumena igotzen joan bisitari kopurua handitzen doan eina eta turismo bulegoen irekierarekin batera. Asmoa da uztaila eta abuzturako aktibitatea normaltasunez egitea, legeak barkuarentzat aforo berria ipintzen duenean.

Dana dala, aurtengo irteera gidatuen programa defizitarioa izango da dudarik gabe. Kalte ordainaren kopuruari gehitu beharko zaio bisitarien jaitsierak eragingo duen diru sarreren jaitsiera eta aforoan murrizketak ekarriko duen defizita. Aurtengo helburua irteera gidatuen programa mantentzea da, esleipendun enpresal dituen lan postuak mantetzeko, gidari, mariñel eta patrioiak behintzat.

2.3. Promozioa eta merkaturatzea

- FITUR 2020. Azkenengo urteetan ohi dugun bezala Geoparkeen stand propioarekin joan gara Fiturrera eta aurkezpen garrantzitsuak egin ditugu, adibidez Turespañako standean.
-
- Eskuorri eta liburuxkak. Irteera gidatuen material guztia prest dago, 2020ko eskuorriak eta portuetako panelak. Erkidegoko turismo bulegoak irekitzen direnean eskuorrien bidalketa bat egingo da baita hotel handienetara ere.
- Irteera gidatuen promozioak indartuko dira. Debarrena eta Urola kostako alojamenduekin promozio berezi bat martxan dago, %20 deskontua bertako alojamenduetako bezeroentzat irteera gidatuetan uztailaren 31ra arte.

3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.3. Ingurune naturala babestea eta kontserbatzea

Ardatz honetan aurre ikusitako ekintza asko bertan behera gelditu dira. Egoerak ahal bideratzen duenean berreskuratuko dira formato berri batera egokituz, hala eskatzen bada (talde txikiagoak etab).

- BIO TOP (Biodibertsitate topaketa) **herritarren zientziari** lotutako ekimena. Udaberrirako programatuta zegoen baina ezin izan genuen egin, udazkenean baloratuko da zentzua daukan egitea ala ez.
- Nazioarteko egunen ospakizuna. GGN saretik jasotzen dugu nazioarteko egunak ospatzeko gomendioa. Aurten, Mendien Nazioarteko Eguna, abenduaren 11an ospatuko dugu, beste guztiak ezin izan ditugu egin.
- Beste ekimen batzuk, naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko egokitu eta martxan ipiniko dira. Adibidez zuhaitzak ezagutzeko herri paseoak, mapa, audio eta irudien bitartez herri bakoitzean 10 bat zuhaitz ezagutzeko aukera ematen duena. <https://geoparkea.eus/eu/albisteak/hirigune-barruko-zuhaitzak-ezagutzeko-ibilbideak>

4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA

Lantaldea: Geogarapeneko langileak

- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorrarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraituko du, bai Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkari-tza-lanak gauzatzen ere. Aurten ez dira aurrez aurreko topaketarik egongo.
- **Irteera gidatuen dinamizatzailerearen eginkizuna**, 2020ari begira,
 - On line erreserba sistemaren kudeaketa.
 - Turismo atalaren kudeaketa orokorra.

Kanpo-laguntza:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraituko du, bai EGS eta MGS ordezkari-tzarekin. Foroko koordinazioa ere mantendu egingo du eta beraz, MGSko aholkularitza batzordeko kide izaten jarraituko du.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** arduratuko da komunikazioaren alorreko aholkularitza, prentsa-oharrak sortzeaz, webgunea eguneratzeaz, boletin digitalaz, eta abarrez.
- **Community manager** bat (sare sozialen kudeatzailea) arduratuko da @Geoparkea markaren estrategiaz Facebooken, Twitterren eta Instagramen.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren** koordinazioa, Naturgune Babestuen (NB) jarduerak eta ingurumen-heziketako ekintzak sustatzeko.
- **Kontabilitate eta aholkularitza juridikoa** erakundearen eguneroko kudeaketarako.
- **Interreg** Europako proiektuak eskatzen duen bezala, lehen mailako **auditorea** kontratatu behar da kontuak auditatuta bidaltzeko Bruselara.
- **Geoparkezakeen** akzio plana egiteko kanpo kontratazioa.

2020rako helburua, lan postuak eta kolaborazio guztiak mantentzea da.

Interreg Atlantic Geoparks proiektua

Urte beteko luzapen bat eskatu da, 2020ko azaro bukaerara arte. Bukatzeko dauden atalak garatu behar dira, bereziki teknología berriak. Aurtengo hitzorduak

- Martxoan Fforest Fawr Geoparkean (Galesen)
- Azaroan Arouca Geopark (Portugalen). Oraindik aurrez aurrekoa edo birtuala izango den definitzeke.

Geoturismoko Europako Ruta bat edukiko dugu diseñatuta proiektua bukatzen denerako eta tecnología berriak erabiliz interpretaziorako tresna berriak ere.

4.1. Harremanak Europako Geoparkeen Sarearekin (EGS) eta UNESCOrekin.

Atal honen helburua da nazioarte mailan Geoparkearen presentzia eta influentzia handitzea. Udaberriko meetinga bertan behera gelditu da eta udazkenekoa zalantzan dago oraindik.

Urteroko ekarpenak egin dira, Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.

Bi sareek erabiltzen dituzten informazio-euskarrietan gure ekarpena handitu. Bestek beste:

- EGN newsletter, sei-hilerokoa
- GGN Newsletter
- EGN magazine
- Kirol proben agenda eguneratua

Kontrolerako erabiltzen diren txostenak ere puntualki bidaliko dira:

- Sei hilabeteko txostena
- Urteko txostena
- Geoparkeen asteko programa eta balorazio txostena

4.2. Komunikazio estrategikoa

Komunikazioak bere biziko garrantzia krisi egoera honetan. Atal hau mantendu ez ezik indartu ere egiten da gestio plan berriari dagokionez.

ON LINE

- Webgunearen kudeaketa eta erreserba zentralaren hobekuntzak urtero egiten ditugu, 2020an:
 - Webguneko atalen berrantolaketa bat egingo dugu
 - Erreserba sisteman hobekuntzak
- Albisteen atala eguneratuta mantenduko da. 2020an 50 bat albiste argitaratuko dira webgunean.
- Newsletterra bi hilebetero bidaliko da gutxi gorabehera. 6 bat ale, urte osoan.
- SEO kanpaina bat ere egingo da, web gunea hizkuntza guztietan ondo posizionatuta egoteko.



OFF LINE

- Komunikabideetan **publizitatea kontratatzea**, irratian zein prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetako komunikabideetan eta jarduera turistikoa murriztagoa den hilabeteetan.
- “Arrastorik ez utzi” bideo bat egingo da, Danobat Group-en diru laguntzarekin. Inguruarekiko jarrera kaltegarriak zalatzen.

5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

5.1. Lehen sektorea sustatzea

- **Geogourmet saskiak** saltzea lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile bereberekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan egongo dira salgai prezio berean.
 - Txakolina: Sagarmiña eta Flysch
 - Gazta: Goienetxe
 - Atuna kontserban: Sizzo eta Nardín

5.2. Geoparkezaleak

- Bultzada berri bat emango zaio Geoparkezaleak komunitateari. Enpresa bat kontratatuko da Geoparkezaleekin lan dinamikak martxan ipintzeko eta **Akzio Plan** bat adosteko. Hurrego urteetan beteko den plan bat izango da, ekoturismoaren arauetan oinarrituta. Lana udarako bukatuta egongo da.
- **10. urteurreneko** ekitaldiak. Momentuz ontzi tradizionalen erakusketa bat Beduola Elkatearen eskutik hiru herrietan, egoerak uzten badigu.

5.3. Geoparkeen Europako Astea

Herritarrei zuzendutako ekimenak antolatzen dira Geoparkeen Astean. Aurten berriz ekimen birtualak aurre ikusi dira.

- 10 urte 10 ekimen. Egunero sare sozialetan azkenengo 10 edizioen ekimen aipagarrienak aipatuko dira
- Estatuko beste 15 Geoparkeekin batera #RespiraGeoparques promozio kanpaña.
- Hiru herrietan paseoak diseñatu arbola ezberdinak ezagutzeko.